


Euskal komikiaren jardunaldiak gaur, Bilbon

ARTEA • Euskarazko komikia ardatz hartuta, *Paparrean komiki eguna* jardunaldiak hasiko dituzte gaur, Bilbon. Larunbatera arte, hainbat ekitaldi antolatuta dituzte, hala nola animazioko film laburren proiektzioak eta komiki azoka. Bestalde, Joseph Camino egilea sarituko dute.



Nestor Basterretxea. J. C. RUIZ / ARP

Nestor Basterretxea omenduko dute

ZINEMA • Euskal Zine Bilerak Nestor Basterretxea zinegile, eskultore eta margolaria omenduko du, gaur, Lekeition, 19:00etan, hark zuzendutako *Ama Lur* filma eskaintzen. Euskal zinemagintza modernoaren «abiapuntua» dela aldarrikatu dute sari-emaleek. *Euskal Zinearen Begirada* saila sortu du Zine Bilerak, esanguratsuak izan diren sortzaileak oroitzeko asmoz.

Maribel Aiertzak irabazi du IV. aforismo lehiaketa

LITERATURA • Maribel Aiertzak eskuratu du Oihenart aforismo sariketako IV. aldiko lehen saria *Dena eta eze* ez lanarengatik. Bigarren saria, Juan Ramon Alberdik lortu du *Goizkorri* obrari esker. Gaur banatuko dituzte sariak 12:00etan, Donostian, EHUko Filosofia fakultatean.

19

KANTU SARIKETAKO KIDEAK
Hemeretzi lagun heldu dira Bilbon egiten den nazioarteko kantu lehiaketako finalaurrekora. Orota, 88 parte hartzaile zeuden. Larunbatean izango da finala, Bilboko Euskalduna jauregian.

Errealitatean lurreratutako irudimena

Toti Martinez de Lezeak «bertako» mitologian oinarritutako fantasia istorioa ondu du 'Enda Lur' eleberri epiko eta koralean

Mikel Lizarralde Donostia

Zergatik erabili erreferentzia anglosaxoiak bertako historiak eta mitologiak nahiko material ematen badute istorio bat kontatze-ko? Galdera horri erantzunez osatu du Toti Martinez de Lezeak (Gasteiz, 1949) *Enda Lur*, «aberri identitaterik gabeko tribuek» lurra menderatzen zuten garaian giroturiko istorio fantastikoa. Erdi Aro goiztiar batean, VI. mendean, gerrak, borrokak eta hilketak egunerokoak eta pertsonaia mitologikoak benetakoak bezain «errealak» zirenean. Fantasiaren munduan kokatu behar baita idazlearen nobela berria, Martinez de Lezearen idazkeraren zeinuak gordetzen baditu ere, Iñaki Aldekoa Erein argitaletzeko arduradunak nabarmendu duenez: «fabularako gaitasuna eta mitologia zaharrarekiko ezagutza handia».

Enda Lur 580. urtean dago girotua Euskal Herriko leku zehaztugabe batean, «Vasconia, Euskal Herria edota Nafarroa existitzen ez ziren garai batean», eta

Endara du protagonista, ilargi gorriko gau batean jaioa izanik, sorgintzat jo eta bere herritik alde egin duen neskatoa. Endara jainkoen eta gizakien arteko nolabaiteko bitartekari bihurtuko da kanpoko lurretatik datozen inbadi-tzaileak etxe atarian dituztenean.

Fantasiaren alorrean giroturiko nobela izanda ere, istorioaren benetakotasuna nabarmendu du idazleak: «pertsonaiak errealak direlako, baita lekuak, mendiak, ur-jauziak eta amildegiak ere». Martinez de Lezeak ondo kokatuak ditu eleberria kokatzen den lekuak, baina izenak aldatu dizkio nolana ere.

Liburuaren sustapen bideo bat ere egin du Martinez de Lezeak Adiune Proiektuen Fabrikarekin elkarlanean. Bideoan, film baten trailerra balitz bezala, *Enda Lur*-en aurkezpen bat osatu dute, eta Larrabetzuko biztanleek jokatu dituzte eleberriko pertsonaien rolak.

Liburu gaztelaniaz idatzi du Martinez de Lezeak eta Miren Arratibelek euskaratu du.



Toti Martinez de Lezea, atzo, Donostian. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS



2. FINALAURREKOA

URDULIZ en.

Azaroaren 30ean, 17:30ean, Iparralde hiraldean



Berria Ugaritza Berria


Etxahun Leize Etxebarria

Gorha Berria Berria "Pirata"


Julen Erroquia Arzakegi

Unintza Erroquia Magurski

Xabier Galarza Alarza



www.bertsozale.eus/bizkaitokxepelteta



zure liburudendan salgai